



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

# Eta zuk, nabigatzen duzu?

## Emakumeak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Gizartea

**Montserrat Boix**

Jende guztiaren ahotan dago Informazioaren eta Komunikazioaren Gizartea eskueran izatearen gaia baina, zertaz ari gara hitz egiten, azkenean? Entzuten dugu "ezin dugula teknologia berrien trena galdu", baina zer esan nahi du horrek, zehazki eta praktikoki, gure eguneroko bizimoduan? Testu honekin, batzuetan erabiltzen diren hitz tekniko ulertezinak tarteko, sarritan "misteriotsu" eta "iniziazioko" dirudien bide honetan lagungarri izango zaizkigun oinarrizko hainbat kontu argitu nahi ditugu, mundu hori azkenean pentsa dezakeguna baino askoz ere irisgarriagoa baita.

Gizarte industrialetik informazioaren gizartera igaro gara. Informazioa izateak hautatzeko aukera gehiago, baliabide gehiago izatea esan nahi du. Hezkuntza, lana, osasuna, gure harreman pertsonal eta sozialak hobe daitezke informazioari eta teknologiei esker.

Une hauetan, jada, oso alde handiak ikus ditzakegu Informazioaren Gizartea eskueran daukatenean eta ez daukatenean artean. Eta alde horiek, denborarekin, gero eta handiago bihur daitezke. "Eten digitala" deritzona sortzen da horrela.

Orain arte, hirian bizitzeak landa eremuetan bizitzeak baino aukera handiagoak eskaini ditu teknologia eskueran izateko orduan. European, Estatu Batuetan edo, oro har, planetaren IPARRALDEAN bizitzeak informazioa eta komunikazioa HEGOALDEAN bizitzeak baino gertuago izatea dakar. Badira "eten digital" hori areagotzen duten beste elementu batzuk, adibidez, adina: gazteentzat errazago, irisgarriago dago adinekoek baino.

Eta eten digital horretan punturik garrantzitsuenetako bat genero diferentzia da, gizonek, oro har, emakumeek baino aukera gehiago daukate, gizartean teknologietatik gertuago egoteko hezi baitituzte. Emakumeen kolektiboaren



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

barruan ere gorabeherak daude... hirietako emakumeek errazago daukate IKTetara iristea (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) landa eremuetan bizi direnek baino; emakume gazteek adinekoek baino hobeto daukate, emakume etorkinek, espertxean dauden emakumeek, edo gizartean batengatik ala bestearengatik baztertuta dauden emakumeek aukera gutxiago daukate jauzia egin eta informazioaren gizarteari heltzeko.

Garrantzitsua da, horregatik, une hauetan dagoen desoreka gainditzeko politikak prestatzea, eta funtsezkoa da emakumeentzat teknologia berrietan trebatzeko eta horietara iristeko proposamenak diseinatzea.

Izatez, nazioartean aitortutako informaziorako eta komunikaziorako eskubidea gauzatzeaz berbetan ari gara.

Bestalde, Pekinen 1995ean egin zen Emakumearen Gailurreko ebazpenaren J puntuan azpimarratzen da emakumeek komunikazioaren teorian eta praktikan hezi behar dutela, eta bultzatu behar dela, jabeakuntzarako giltzarri modura, Informazio Teknologiak eskueran izan ditzaten, gizon eta emakumeek aukera berdinak izango badituzte.

### ***- Ingeniaria izan behar dut Informazioaren Gizartean sartzeko?***

Kontu teknikoak egun gutxitan ikasten dira, eta giltza, azkenean, praktikatzean dago. Enpresa baten kontuak eramateko kalkulu programa bat edo beste, ondo ezagutzeak, edo testu prozesadore bat erabiltzen jakiteak ordenagailua aspaldiko idazmakinen antzera erabiltzeko balio digu, eta lagungarri izan dakiguke, baina horrek ez du "Informazioaren Gizarterako" ateak zabalik ditugunik bermatzen. Garrantzitsuagoa da ordenagailua eta Internet zertarako erabili nahi dugun, teknologia berriak gure eguneroko bizitzan zer egoeratan aplikatu ditzakegun jakitea.

Zertaz ari gara berbetan, orduan, "Informazioaren Gizartea" aipatzen dugunean? Informazioa trukatzeko, planeta osoarekin berehala erraz eta merke komunikatzeko gure aukerak izugarri aldatu direla, horretan jauzi erraldoia egin dela jabetu eta hori baliatzeaz hitz egiten ari gara; zerbitzu ugari eskueran izateaz, fisikoki mugitu beharrik gabe, eta hirian, landa eremuan ... non gauden berdin delarik... baldin eta "konektatuta bagaude, erraz pasatuko gara ***tokian tokikotik globalera*** eta etekina aterako diogu horri. Sarearen bitartez eratzen ari



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

den jakinduria kolektiboa eskueran jarriko digu, eta hortik elikatu ez eze, sortzen laguntzeko aukera ere izango dugu. Mundu demokratiko eta zintzoagoa eraikitzen parte hartzeko aukera gehiago eta, ondorioz, protagonismo handiagoa izatea esan nahi du.

Edozein gestio egin ahal izateko, kultur eremu ugaritara iristeko, tren edo hegazkin txartelak erosteko -bidai agentzia tradizionaletan baino merkeago, gainera-, erosketak supermerkatuaren web orrialdearen bidez egiteko, munduko museorik garrantzitsuetan zeharreko bisita birtuala egiteko, editatu berri diren testuak, liburuak, pelikulak eskuratzeko, munduko edozein tokitako egunkariak denbora errealean irakurtzeko, gure administrazioekin, diputatuekin posta elektronikoen bidez konektatzeko, gizarteko eginkortasun sareekin harremanetan jartzeko, kezkatzen gaituzten hainbat gairi buruzko gure ikuspegiak mahairatzeko eremu interaktibo desberdinak erabiltzeko, informazioa antolatzeko eremu kolektiboetan parte hartzeko eta abar.

Horretarako guztirako EZ DAGO JAKINDURIA TEKNIKO HANDIREN BEHARRIK. Etxean ordenagailua edukitzea ere ez da ezinbestekoa, lagungarria bada ere. Garrantzitsuena da aukera ugari zabaldu direla jakitea, eta ezagutu behar ditugula, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek gure bizitza kalitatea hobetu eta bide berrietarako ateak irekitzeko aukerak eta abantailak alferri ez galtzeko, eta ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

\* Etxean ordenagailurik izatea pentsaezina den herrialde askotan, jendea ziberkafeetara joaten da minutu batzutan konektatzera, postontzi elektronikoa begiratzera, informazio zehatzen bat bilatzera, edo erakunde, enpresa, organismo eta abar desberdinen web orrialdeen bidez gestioaren bat egitera.

\* Etorkin askok posta elektronikoa erabiltzen dute sorterrian dituzten senide eta lagunekin komunikatzeko, telefonoz hitz egitea baino askoz ere merkeagoa baita.

\* Egunero-egunero, gure seme-alabak Interneterako konexioa erabiltzen ari dira lagunekin konektatzeko, eskolako ariketak, argazkiak, musika trukatzeko, ikusi duten azkeneko pelikulaz "hitz egiteko", edo hurrengo astebururako "hitzorduak" zehazteko.

\* Landa eremuetan Internet prestakuntzarako erabiltzen ari da. Mota eta maila guztietako ikastaroak daude, unibertsitateek homologatuta.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

\* IKTak bereziki lagungarriak dira irakaskuntzaren alorrean eta mesedegarriak dira hezkuntza iraunkorrerako.

\* Teknologia berriek enplegurako esparru handia eskaintzen digute. Lan eta lanbide berriak sortzen dira. IKTak erabiltzen ikasteak lana aurkitzea errazten du.

\* Gizarteko sare askok, eta horien artean emakumeen sare askok, Internet erabiltzen dute informazioa trukatzeko, hedabide tradizionalen informazio monopolioa hautsiz, arazo komunak eztabaidatzeko, eta baterako jardunbideen estrategiak koordinatzeko.

\* Internetek jakinduria kolektiboa sortzen laguntzen digu.

**Informazioaren gizartea geldiezina da, eta jada eraikitzen ari dira ... gure ikuspeirik gabe? Gure kulturarik gabe? Gurea ez den beste hizkuntza batzuetan? Horregatik, garrantzitsua da eskueran izan dezagun, sar gaitezen eta osoki parte har dezagun.**

***- Zertaz hitz egiten ari gara "informazioaren eta komunikazioaren teknologiak" aipatzen ditugunean?***

Egia da irratia eta telebista informazioaren teknologiatzat har ditzakegula. Baina informazioaren eta komunikazioaren bidean jauzirik handiena egiten uzten ari zaizkigun teknologiak sakelako telefonoak eta, batez ere, Internetera konektatutako ordenagailuak dira.

### ***Internet***

Imajinatu milioika ordenagailu, planeta osoan zehar, etengabe konektatuta... Sarera konektatutako ordenagailu horietako bakoitzetik informazioa edozein unetan jaso eta bidal dezakezu. Mezuak bidali ahal dizkiozu beste bati posta elektronikoaren bidez, mezu bat jende askori aldi berean bidali ahal diozu (pentsatu zenbat diru eta denbora aurrez dezakezun pertsona askorekin koordinatu behar baduzu... lehenago faxa erabiltzen zen, banan-banan bidali eta telefono deia prezio normalean ordainduz), interesatzen zaizun web orrialdea irakur dezakezu, zure ikuspegia idatzi fororen batean... ezezagun edo arrotz



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

zaizkizu e-mail, web, foro, chat hitzak? Ez kezkatu, jarraian horien guztien gaineko xehetasunak kontatutako dizkizugu.

Gogoan izan Internet erabiltzeko ez duzula etxean ordenagailurik behar. Zerbitzu bat da, eta gaur egun eskaintza zabala daukazu, eskaintza publikoa eta pribatua, sarera sar zaitezten errazteko. Biblioteketan, ziberkafetean, telezentroetan, eta abar.

#### INFORMAZIO BALIAGARRIA:

- Eusko Jaurlaritzak 2001ean KZgunea egitasmoa abiarazi zuen; dohaineko zentro publikoak sortu zituen, jendea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan hezi eta teknologia horiek erabil daitezten bultzatzeko. KZguneek behar den azpiegitura daukate eta tutore adituek bideratzen dituzte, Internet Euskadiko herritar guztien eskueran jartzen dute, teknologia berrietatik urrunen dauden sektoreengana bereziki zuzenduz, etxekoandre, erretiratu, langabe eta etorkinengana, alegia. Web orrialdea: <http://www.kzgunea.net/> Helbide elektronikoa: [kzc@kzgunea.net](mailto:kzc@kzgunea.net)

- Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren web orrialdean euskal herritarrek informazioaren gizartera sartzeko, etxerako ordenagailuak erosteko, enpresak IKTak eskuratzerara bultzatzeko eta abarretarako dauden laguntzen gaineko berri aurkituko duzu.

<http://www.euskadi.net/eeuskadi/>

#### ***Zure helbide elektronikoa edukitzea***

Betiko gutunak jasotzen dituzun helbide fisikoa daukazu bezala, helbide elektronikoa ere eduki dezakezu (ingelesez e-mail esaten diote), zure ordenagailurik eduki zein ez. Nahikoa da halako zerbitzua eskaintzen duen web orrialde batera joan -normalean dohain izaten da-, eta alta hartzeko formulario txiki bat betetzea eta, handik minutu gutxira, zure postontzi edo helbide elektronikoa edukiko duzu.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

"Gutunik" jaso duzun ikusteko, nahikoa da posta zerbitzua eskaintzen dizun web orrialdera konektatu, zure pasahitzak sartu eta jasotako mezuak hartzea. Posta elektronikoa eskaintzen dizun web orrialderako konexioa edozein ordenagailutatik egin dezakezu.

Gutunean ohar txikia idatz dezakezu, ala luzea, baina dokumentuak, argazkiak, soinu artxiboak eta abar ere erants ditzakezu.

Webaren bidez dohaineko posta elektronikoa lortzeko gehien erabiltzen diren zerbitzuak Gmail, Yahoo eta Hotmail dira. Ez dakizula zein den beren weberako helbidea? Ez kezkatu, nahikoa da izenetako bat bilatzaile batean sartzea (gehien erabiltzen dena Google (<http://www.google.es>) da), eta berehala aurkituko dituzu alta hartzeko orrialdeak.

Internetera konektatzeko zerbitzuen enpresa batean alta hartzen duzunean posta elektronikoko helbide bat ala gehiago izateko aukera ere eskaintzen dizute.

### *Web orrialdeak*

Web hitza ingeleseko " **World Wide Web**"etik dator; munduko amarauna esan nahi du. Interneten web orrialde bat irakurtzeko "nabigazio" programa bat erabiliko dugu. Nahi dugun web orrialdearen helbidea ezagutzen badugu ( **http://**, horrela hasten diren denak), nabigatzailean zuzenean idatziko dugu. Helbidea ezagutzen ez badugu, eta dakigun bakarra izen bat edo datu bat bada, lehenago esan dugun "bilatzaile" horietako baten orrialdera joango gara eta izena edo datua ipinita, bilatzen ari garen web orrialdea berehala aurkituko digu, ziurrenik.

Interneten bidez "nabigatzeko" nahikoa izango da "hipertestuen estekak" klikatuz joatea, hau da, azpimarratuta dauden edo kolore desberdinez ageri diren hitzen gainean klikatuz. Saguaren erakuslea beste leku batzuetara eramango gaituzten ate horien gainean jartzen dugunean, atzamarraz marraztutako esku bat agertuko zaigu, "klikatu hemen" adierazi nahirik. Saguarekin klikatu besterik ez daukagu nabigatzeko, eta "ziberespazioak" eskain diezagukeen guztia aurkitzeko."

Egun, web orrialdeak bistaratu eta ikusteko ez eze, dinamikoagoak izateko ere atonduta daude, bisitariak menu interaktiboan, inkesten, bozketen eta abarren bidez parte ahal izan dezan.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

**Internet interaktiboa: Sarearen eta interneten kontzeptu dinamikoan pentsatzea.**

Egun, oraindik ere, webak sustapenerako erakusleiho modura, "iragarki" bezala estatikoki erabiltzen dira.

Gaur, tresna askok ahalbidetzen dute komunikazioen demokratizazio handiagoa, eta interaktibotasuna errazten dute. Dagoeneko ez da jakinduria tekniko handirik behar gure ahotsa Interneten entzunarazteko.

Ondokoak balia ditzakegu:

. **Argitalpen kolektiboko espazioak.** Adibide on bat **SPIP** tresna da (Software librekoa, gainera). les Dones del País Valencià (Valentziar Herrialdeko Emakumeak) Xarxa Feminista del País Valencià web gunean erabiltzen duten argitalpen dinamika bitarteko horrekin sortuta dago. Erakunde bakoitzak bere pasahitza dauka eta bere testuak bere atalean argitaratzen ditu.

. **Blogak.** Bost minutuan zure espazio pertsonala eduki dezakezu, blog bat sortzen baduzu. Sarean dohain eskaintzen dira eta formulario txiki bat bete eta argitaratzen hasi besterik ez duzu egin behar. Blogak sindikatuetan sar daitezke, eta horrela elkarrekin komunikatutako blog kateak ere sortzen dira. Zure erakunderako blog bat ere erabil dezakezu.

. **"Linean" eratutako plataformak.** Horietako batzuk Software Librekoak dira eta, beraz, libreki erabili, kopiatu eta aldaraz daitezke, diru aurrekonturik gabe, sarearen bitartez dohain deskargatzen baitira. Moodle plataforma, adibidez, lanerako tresna ona da.

Web orrialde askotan foro eta eztabaida atala egoten da. Hor izena eman eta, besterik gabe, mezu bat idatzi eta eskegi dezakezu, gai bati buruz pentsatzen duzuna azalduz, informazioa eskatuz, eta abar.

**Chat** batera sartzea ere oso erraza da. Hor, denbora errealean, idatzizko mezuen bidez une berean espazio berera konektatuta dauden pertsona ugarirekin komunikatu eta "hitz egin" ahalko duzu.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Chat lanabesek, adibidez, lan bilerak "linean" egitea ahalbidetzen dute. Imaginatu lan bat pertsona bat baino gehiagorekin koordinatu behar duzula, eta bakoitza, fisikoki, toki desberdin batean dagoela. Hitzordua jar dezakezue chat gune batean, eta egitasmoan aurrera egiten utziko dizuen eztabaida hori egin. Aukera asko dago... irudimena besterik ez da behar.

### ***Jakinduria partekatzea: Wikipedia***

Jakinduria partekatu eta denok parte hartzeko aukera ona Wikipediak ematen du.

Wikipediak berak ematen duen definizioa erabiliko dut. Gainera, egiletza arazo barik ebaki eta itsats dezaket, entziklopedia hau "copyleft" baita, hau da, eskubideen modu berri bat, "copyright" ezagunak ez bezala, edukia kopiatzen uzten dizuna, testuaren egilea aipatzeko baldintza bakarrarekin. Hori bai... femeninoz egindako oharra (gaztelaniazko testuan) neure ekarpena dira, Wikipedia sortzen parte hartzen dutenen puntu ahuletako bat da ez dutela generoari buruzko gogoeta handirik egiten eta, are gutxiago, hizkuntza "ez-sexista" erabiltzea kontuan hartzen.

*"Wikipedia entziklopedia libre eleanitza da, wiki teknologian oinarritua. Wikipedia boluntarioek idazten dute, laguntza edo ekarpen modura. elkarlanean eta, horrela, web nabigatzaile batetik sartzen den edonork artikuluak aldaraz litzake. Egitasmoa 2001eko urtarrilaren 15ean hasi zen, Nupedia, adituek idatzitako entziklopediaren osagarri modura. Orain irabazi asmorik gabeko [Wikimedia Foundation](#) fundazioaren mende dago. Wikipediak 3.210.000 artikulutik gora dauka, [ingelesezko edizioan](#) 945.000tik gora, eta [2006ko urtarrilean](#) 875.000 erabiltzaile erregistratu izatera heldu da. Sortu zenetik, Wikipediak ospea eta izen ona irabazteaz gain, bere arrakastari esker [egitasmo kideak](#) agerrarazi ditu. Eztabaida dago, baina, bere fidagarritasunaren inguruan, ordea.*

*Hedabideek eta zientzialarien komunitateak Wikipedia aipatzen dute, batzuetan kritikoki, beste batzuetan goraiatuz, banaketa librekoa delako, etengabe hobetzen ari delako, eta fazeta ugari dituelako, eleanitza dela ere ahaztu barik. Sarritan ez da iturri bakar modura aipatzen, informazio iturri osagarri modura baizik.*

*Wikipedia 200 hizkuntza baino gehiagotan idatzita dago, baina 100 baino ez daukate aktibo. Hamabi edizioak 50.000 artikulua baino gehiago dituzte;*





Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

*ingelesezkoak, alemanezkoak, frantsesezkoak, japonierazkoak, polonierazkoak, italierazkoak, suediarrezkoak, daniarrezkoak, portugesezkoak, espainierazkoak, txinerazkoak eta errusierazkoak. Alemanezko bertsioa DVD-ROMen banatu da, eta ingelesez DVD eta papereko bertsioa egiteko asmoa dago. Beste edizio asko interneten bidez kopiatu dira (ispiluen bidez), edo entziklopedia eratorriak sortu dira (forks) beste web gune batzuetan.”*

Hona hemen Wikipediaren web helbidea: <http://www.wikipedia.org>

Hor hizkuntza desberdinetako bertsioak aurkituko dituzu.

Katalanezko wikipediak (viquipèdia) 24.000 artikulua dauzka. Helbidea hau da: <http://ca.wikipedia.org/wiki/Portada>

Euskarazko wikipediak, orain, 5.000 testu inguru dauzka. Hemen aurkituko duzu: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>

## I Emakumeen sareak Interneten

Zelan izan gaitzke beste herrialde eta kultura batzuetako emakumeekin solidario zer arazo daukaten eta zelako babes behar duten ez badakigu? Zelan jar gaitzke haiekin harremanetan eta zelan jakin dezakegu zer lehentasun ipini dituzten beren egoerari aurre egiteko? Azken batean, planetako puntu desberdinetako emakumeen borrokak ez dira hain desberdinak... Zelan antola gaitzke informazioaren erabilpen kolektiborako, munduko milioika emakumek landutako esperientzia batuz?

70. eta 80. hamarkadetan sortu ziren emakumeen nazioarteko sareek, bereziki, elkar ezagutzeko, elkarlotzeko, harremanetan jartzeko eta ideiak eta, batez ere, ekonomia, gizarte eta kultura errealitate desberdinetatik esperientziak trukatzeko balio izan zuten. Batzuek joateko aukera izan zuten Nazio Batuek eta nazioarteko beste erakunde batzuek bultzatu zituzten konferentzietara eta telefonoak eta helbideak eman zizkieten elkarri. Agerian geratzen hasi zen sareak eratzearen garrantzia, baina denok ezin genuen planetako leku batetik bestera joaten ibili, elkartzeko eta gure arazo komunak eztabaidatzeko. Telefono lineak eta faxa, duela urte batzuk komunikatzeko hainbeste erabiltzen zirenak,



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

garestiegi ateratzen zitzaizkigun. Komunikazio eta harreman prozesua zaila, motela eta, sarritan, elitista zen.

Gauzak horrela, Komunikazioaren Teknologia Berriak agertu ziren. Posta elektronikoa, internet... eskueran ipini dizkigute, bat-batean, ondorio iraultzaileak izan ditzaketen lanabes berriak. 90. hamarkadaren hasieran gaude, eta hainbat emakume, orduan, gai izan ziren Teknologia Berri horiek emakumeen eskubideen garapenean eta defentsan erabiltzearen garrantzi estrategikoa igartzen hasteko. Beren esperientziak eta emakume taldeak KTBen erabilpenera bultzatzeko eginkortasunak bidea leundu zuten, urte batzuk geroago, ia ezerezetik eta askotan auto-didaktika hutsetik, APCren (1) eskutik sarean azaleratzen ari ziren espazio alternatiboen laguntzarekin, hainbat eta hainbat egitasmo sortu ziren, Interneten emakumeen borroken eta feminismoaren presentzia finkatzeko giltzarri izan direnak.

#### ***- Beijing, erreferentzia puntu historikoa emakumeentzat Interneten***

1995eko irailean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko Munduko Laugarren Konferentzian lehenengoz mahairatu zen halako mailako nazioarteko foro batean komunikazioak emakumeen garapenerako eta jabekuntzarako oinarritzko arma gisa duen garrantzia, eta eztabaidaren ardatz nagusietako bat izan zen (2), gainera.

Hainbat urtetako lanaren emaitza da; Latinoamerikako emakume komunikatzaileen sareek bereziki gidatu duten lana, genero ikuspegidun komunikazioaren gaineko nazioarteko hainbat konferentzian islatu dena. 1993an Quitoan, Ekuadorren, Komunikazio Alternatibo eta Herritarraren Topaketa egin zen, eta ondorioetan, jada, munduko herri guztiek aitortutako giza eskubide nagusien artean, komunikazioaren eta informazioaren aldarrikapena estrategia global modura jaso zuten (3). Hurrengo urratsa Bangkokeko Nazioarteko Konferentzian egin zen, "Komunikazioa indar iturri emakumeentzat" lelopean (1994ko otsaila); han, besteak beste, emakumeen komunikabideak sendotu behar zirela azpimarratu zuten, baita loturak eta sareak estutu, eta bitartekoen izaera patriarkala zalantzan jarri ez eze, bitarteko horiek deszentralizatu eta demokratizatzen ere saiatu behar zirela(4). Genero Komunikazioaren Topaketa Erregionalean (Quito 1994) Komunikazio eta Generoko Foro Iraunkorra sortu zen, eta "genero komunikazioaren arazoa NBEren Argentinako eskualde bilerako eta Beijineko Agentzietan sar dadin lan egitea" erabaki zuten (5); azkenik, Torontoko Nazioarteko Sinposioan, UNESCOk antolatutako Emakumeak eta Hedabideak: Adierazpena eta Erabakia



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

eskueran (1995eko martxoa), emakumeen sareen garrantzia aldarrikatu zen, bai albisteak ematen dituzten sareena, bai emakumeei eta emakume taldeei beren jarduera pertsonal, familiarretan eta garapen komunitarioan lagundu eta babestuko dituen informazioa helarazteko bitarteko alternatiboak erabiltzen dituzten sareena (Ekintza Plataformaren 1.4 puntua (6)), eta Beijingen burutu zen komunikazio eta generoari buruzko esparrua finkatu zen.

Beijing, bestalde, ezinbesteko erreferentzia da emakumeen eta Informazio Teknologia berrien erabilpenaren historian, zeren halako mailako nazioarteko topaketa batean, lehenengoz, jarraitu baitaiteke mundu osotik lan saioen garapena Interneten bidez. APC Emakumeak erakundearen Emakumeen Sareen Babeserako egitarauak egindako lanaren burutzapena izan zen.

### *1993 . 1995 Emakumeen lehenengo sare elektronikoak.*

90. hamarkadaren hasieran zenbait gizarte erakunde Teknologia Berriek komunikazioaren demokratizazioan izan litzakeen ahalbidez pentsatzen hasi ziren, eta posta elektronikoa eta albisteetarako taldeak erabiltzen zituzten estrategiak eztabaidatu eta elkarrekin koordinatzeko. Erreferentziako zerbitzari alternatiboak Estatu Batuetan IGC7 eta Ingalaterran GreenNet (8) izan ziren, orain Interneten gizarte zibilaren munduko sarerik garrantzitsuena den APCren jatorria.

Talde bakezaleak, giza eskubideen babesaren aldekoak, garapenaren eta ingurumenaren babesaren aldekoak izan ziren sarearen aitzindariak. Mugimendu horietatik gertu zeuden hainbat emakumek hasieratik jakin zuten lanabes berri haren aukera estrategikoak ikusten.

Karen Banks australiarrak Londresen Green Net-etik eta Sally Burch kazetari britainiarrak, ALAIn (9) egindako lanarengatik herri komunikazioan eta genero komunikazioan eskarmentu handikoak, Ekuadorretik ekin zioten lan taldeari. APCren inguruko lehenengo talde feministak American International Health Alliance, Boston Women.s Health Book Collective, Casa de Colores, Center for Women.s Global Leadership, Femnet, Equality Now, Global Fundation for Women, Isis Internacional eta De Mujer a Mujer izan ziren.

1993an APC-Emakumeak (10) egitaraua sortu zen, emakumeen gizarte sareak sare elektronikoetara hurbiltzen laguntzeko, Beijingen Emakumeen Munduko IV.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Konferentziaren aurrean, eta horrela Interneten emakumeen lehenengo sareak sortu ziren. Sally Burch izan zen egitasmoaren arduraduna. Ordenagailuak eta konexioak erabiltzen ikasten gaitzeko lanari talde feministek komunikabide berri hau erabiltzeak eskaintzen dituen aukera ugarietz jabe daitezela sentiberatzea gehitu behar zaio, eta hori ez da bat ere erraza. Erakundeak hasi dira teknologia berriez interesatzen, APCk Beijingen komunikazio zentro bat izango zuela jakitean. (11) Erika Smith iparramerikarrak kontatzen du 1994ko abuztuan APCren zerbitzariaren La Neta12ren Emakumeen Egitaraura sartu zela, Mexikon, eta horren buru izaten segitzen duela. Erika da sarean dauden emakumeen historiaren jatorrian dagoen beste izen garrantzitsu bat.

Eztabaida foroak, posta elektronikoen zerrendak eta abarrak hasi ziren, besteak beste, oraindik ere indarrean dagoen garrantzitsuenetako bat, Modemujer(13), eta Mexikotik banatzen duen bere informazio sarea New Yorken 2000ko ekainean egin zen Beijing+5 bilerari buruzko informazioa espainieraz zabaltzeko erabakigarria izan da, eta koordinaketa zentroak antolatu ziren kontinente guztietan eta hizkuntza desberdinetan. Prozesua 1995eko irailean burutu zen, 24 herrialdetako 40 emakumeren taldeak 1700 erabiltzaileri prestakuntza eta laguntza ziurtatu zizkietenean eta, gainera, Txinan egondako GKEen informazioarekin eremu elektroniko bat ere sortu zuten, 18 hizkuntzatan, web orrialdean 100.000 bisita zenbatu zituen(14).

Ehunka emakumek egiaztatu ahal izan zituzten, bertatik bertara, Komunikazio Teknologia berrien aukerak. Saio haietan mundu osora zabaldu ziren posta elektronikoko mezuei esker, Beijingera joaterik izan ez zuten taldeek informazioa jaso zuten, hedabide tradizionalen mende egon barik zeren, hedabide horiek, gainera, ez baitzuten ekitaldi hura bereziki ondo landu. Emakumeen jabekuntzarako komunikazioa erabiltzearen aldarrikapenarekin eta hedabideak demokratizatzeko eskakizunarekin batera, ikertu beharreko beste bide batzuk ere bazirela ikusi zuten, aurkitu eta okupatzeko mundu berria, balioak itzulikatzeo aukera eta oraindik manipulatu bako eremua emakumeen borrokarako erabili ahal izateko moduko mundua, alegia.

### ***1996 . 1997 Internet okupatzen***

Beijingek, ezbairik gabe, iragana eta geroa bereiztu zituen, emakumeek teknologia berriak erabiltzeko estrategia politikoak diseinatzeari dagokionez, eta garai hartan egitasmo ugari sortu ziren, denbora igaro ahala, sarearen finkatu direnak.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

95eko abenduan, Bartzelonan, nazioarteko foroa, "Emakume kazetariak, Mediterraneo eta Etorkizuna" egin zen, Dones Periodistas de Catalunya deituta, non esperientzia pilotu batean topaketaren garapenaren berri sarearen bidez zabaldu baitzen eta, batez ere, han zeuden kazetariei Interneten ekiteko aukera eman baitzitzaien.

Les Dones Periodistas-ek sarea okupatzeko deiarekin bat egin zuten, beren weba (15) lehenengoan artean egon zen, Interneten presentzia duten Espainiako emakumeen artean; hala ere, Euskadin "Emakumeen Hiria" elkarteak sortutako "Andreanet" egitasmoaren aztarnak bilatu beharko genituzke; talde horrek, jada 1997an, ohorezko goraipamena jaso zuen Emakunde Sarietan, "emakumeekin zerikusia daukan edozein gai bistaratzeko teknologia berriak erabiltzeagatik, eta jada sarean ikusgai dagoenari buruzko informazioa pilatzen saiatzeagatik baina, zoritxarrez, berehala desagertu zen.

1996 urtea giltzarria izan zen herrialde desberdinetan emakumeen sare elektronikoko taldeak garatzeko. Italian, Emakumeen Dokumentazio Zentroak eta Boloniako Orlando Emakumeen Elkarteak ekainean, Boloniako udalaren laguntzarekin, emakumeek kudeatutako eta genero edukiko zerbitzari bat inauguratu zuten, Server Donne (16), nondik emakumeen taldeei, elkartei eta emakume norbanakoei sarera sartzeko bidea emango zaien eta, gainera, Palazzo de Notain "Internet Aretoa" ere sortu zen; egun, oraindik ere, hiriko emakumeek Interneten dohain konektatzeko aukera daukate. Une hauetan, Server Donne sarean dauden emakumeen talde italiarrak aurkitzeko erreferentzia nagusietako bat da. Italiako ingurunean Info@Perla(17) nabarmentzen da, teknologia berriei eta generoari buruzko gogoetarako aldizkaria, Medea(18) taldea sorraraziko duena (Venezia, 1997ko maiatza), gizarte digitalaren oraingo eta geroko eszenatokiekin zerikusia daukan telematika ikertzeko.

96ko ekainean, Frantzia, Penelopes sarea (19) sortu zen, Joelle Palmieriren eskutik; emakumeen eta Teknologia Berrien nazioarteko mugimenduaren eginkortasunean eskarmentu handiko emakumea da, ekonomiara eta kudeaketara aplikatutako Informatika Zientzian aditua. Joellek informazioa eskueran izatea ez eze, informazioa emakumeen beraien sareetan ekoiztea ere defendatzen du, erresistentzia mugimendua hedatuko bada. Indar erlazioa iraul genezake, edukiak eta praktikak dauzkagulako.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Gakoa baloratzean dago. Ezinbestekoa da borroka estrategia, eraso estrategia ere izatea. Ez daukagu ezer galtzeko, eta dena irabazteko daukagu. Horrela hedabideetako irudia aldatu ahalko dugu: aktoreak garen aldetik (egileak, kontzeptugileak, artistak, errealizadoreak...), subjektuak garen aldetik (eguneroko bizitzan, politikan, lanean, indarkerian...) publikoa garen aldetik. (20)

Latinoamerikatik sarean feminismoko eta generoko testuak sartzen dira, hango APC zerbitzari alternatiboen laguntzaz -garrantzitsuenak Neta, Mexikon, eta Ecuanez, Ekuadorren dira; emakumeari buruzko berariazko ALAI atal bat daukate.

1997an Teknologia Berriei laguntzeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntza egitarauak jarri ziren praktikan. Kanadan, emakumeen eta ITBen historian ezinbesteko erreferentzia izanik, Quebecoko gobernuak Informazioko Autopisten Funtsa diruz laguntzen du eta, horri esker, emakumeek teknologia berrien eta generoaren oihartzunaren gaineko ikerketetan trebatzeko aukera izan dute.

Egitasmorik interesgarrien artean Womenspace(21) dago, jada 1995ean hasi zena eta une hauetan espazio bizia dena -ingelesez eta frantsesez- emakumeek Interneten duten paperaren inguruko gogoetan. Ezin dugu ahaztu, bestalde, Kanadan sortu zela Emakumeen Munduko Martxaren asmoa (22), komunikazio elektronikoen eremu berririk gabe pentsaezina zatekeen mugimendua, hain zuzen.

Baina itzul gaitezen harira, 97ko urtarrilean [Info@Perla-k](mailto:Info@Perla-k) inkesta bat egin zuen konektatuta zeuden emakumeen perfila zehazteko, beste herrialde batzuetan berdina edo antzekoa izan zitekeelakoan. Inkestaren arabera, lana eta ikerketa ziren emakumeak sarean egoteko arrazoi nagusiak, eta chatak eta foroak gutxi erabiltzen dituzte.

Emakumeei gehiago interesatzen zaie hedabidearen informazio ahalmena, komunikazio eta dibertimendu kontuak baino.

### ***Aldizkari feministak: paperetik sarera***

Web feminista askoren interneteko presentziaren lehenengo fasea paperezko tradiziozko aldizkariak formatu elektronikoko bihurtzeko ahaleginetik dator;



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

abentura horri ekiten diotenak, ordea, berehala ohartzen dira bertsio elektronikoa bere kabuz ibiltzen hasten dela.

Paperezko aldizkari batek edizio koste handiagoak ditu -web orrialde bat mantentzea merke ateratzen da-, edukiak eta formatua aldatzea zailagoa da, dinamikoa ez da hain elkarrengarilea eta banaketa askoz ere motelago doa.

Denboraren perspektibarekin garai hartan ekin zitzaizkien prozesuen bilakaera interesgarria azter daiteke. Adibidez, *Il Paese delle donne* (23) aldizkariaren esperientzia, -Emakumeen herrialdea- Cristina Papak Erroman sortua, eta feminismoaren erreferentzia garrantzitsua Italiako sarean, edo *Creatividad Feminista* (24), espainierazko prestigiorik handieneko web feminista bat, Ximena Bedregal buru duen emakume talde batek Mexikotik egiten duena. "Creatividad Feminista 1997an sortu zen -dio Ximenak- 1991tik inprimatu, diseinatu, atondu, banatu eta gainerako guztia egiten genion *La Correa Feminista* aldizkaria sarean ipintzeko ahaleginean. Saretik zabaltzeak zer esanahi izan zezakeen garbi ikusi baino gehiago, joko, erronka moduko bat izan zen, konputagailuan multimedia aurkitu berria genuen, eta irudiak, soinuk eta testuak maneiatzen saiatzen ginen, gure ikuspegi feministatik egitasmo pertsonalak egiteko, gune, atari edo aldizkari bat egiteko baino gehiago (...) 98.aren erdialdera, egun batean estatistikak begiratzera sartu nintzen eta, hara, zelako ustekabea! hilean 5000 irakurketa inguru zuela ohartu nintzen. Sinestezina iruditu zitzaidan, Interneteko bizitzan une hartan, eta galdera bat sortu zitzaidan, nor, nola, zer paper ari zen jokatzen? *La Correa* beste bide batzuetatik izaterik zegoen? Horrekin batera, paperezko aldizkaria ateratzen segitzeko baliabideak agortu ziren eta interneteko bertsioari gehiago sartzea erabaki nuen, norantz nindoan ondo jakin barik, hedabidea ikertzeak izugarri bizitzen ninduen eta egiten ikaragarri gozatzen nuen arren."

1997an Latinoamerikan posta elektronikoa bidez informazioa trukatzeko sare feministarik garrantzitsuenetako bat sortu zen: *Tertulia*. Azaroan, Laura Asturias Guatemalako kazetariak, *La Cuerda* aldizkari feministaren edizioko partaideak, asteko albisteen zerrenda, iritzi artikulua eta abar abiarazi zituen, posta elektronikotik, genero ikuspegiarekin eta ikuspegi feministarekin, non, besteak beste, genero indarkeria, sexu eta ugalketa eskubideak, osotasunezko osasuna (HIESA), giza eskubideak, kultura, emakumeen historia, jabeak, emakumeen partaidetza eta lidergoia eta, haurren eta gizonezkoen egoera eta abar jorratzen dituen. 2000ko azarotik, *Tertulias* (25) interneten ere orrialde bat dauka, 2000tik aurrerako edizioak hartzen dituena, eta *Litertulia* (26) ere bai, generoari, feminismoari, maskulinitasunari, osasun eta sexu eta ugalketa eskubideei, lege eta



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

konbentzioei, hedabideei, sexu aniztasunari, eta abarrei buruzko ezinbesteko testuekin. Irratia eta telebista Interneten bidez. Oraindik oso modu esperimentalean bada ere, Internet jada komunikazio feministako lurralde berrien ikerketarako ikuspegi interesgarri bihurtu da.

1998ko martxoaren 8an Costa Rican Radio Interactiva Feminista Komunikazioen Elkarteak eratu zen, FIRE (27), internet bidez emititzen duen eta estreinako emisioa urte horretako abuztuaren 25ean egin zuen lehenengo irrati feministaren sorburua. FIREk latinoamerikar herrialdeetako irratiaren erabilpenaren tradizio zabala jaso zuen, genero ikuspegia eman, eta Teknologia Berrien euskarriarekin emakumeentzako komunikazio esparru berriak ikertzen lagundu nahirik.

1999aren erdialdera, Penelopes taldea, bere weba tarteko, saretik astean telebista programa bat emititzen hasi zen. Ezin ditugu, jakina, teknologiaren mugek ezarritako murrizpenak alboratu, garbi baitago halako emisioak ikusi ahal izateko ordenagailu indartsua behar dela, eta denek ez dutela halakorik eskueran izaten, baina, hala ere, esperientzia honekin oraindik ikertzeko dagoen bide berria zabaldu zen.

FIRE eta Penelopes TVk osatu zuten multimedia taldea New Yorken egin zen Beijing+5 bileran, 2000ko ekainean, Munduko Konferentzia baino bost urte geroago, foroko protagonisten ahotsak eta irudiak helarazteko gai izan zen talde hura, alegia.

## II Komunikazioa, IKTak eta feminismoak

Azkeneko hamarkadetan hedabideak funtsezkoak izan dira, "iritzi publikoa" deritzona baldintzatu dute eta, egun, gizarte eremuan izugarri garrantzitsuak diren elementu izatera heldu dira. Ekonomian, politikan, gizartean eta kulturaren agintea dutenek badakite hedabideen kontrola funtsezkoa izango dena irauteko, eta hedabideak erosi eta kontrolatzeko politikak garatu dituzte, nabarmen - ia monopolioan kontzentratzeraino- beren helburua gauzatu ahal izateko; oposizioan daudenak ere jabetuta daude beren alternantziarako proposamenerako hedabideekiko harremanak ondo kudeatu behar dituztela, ezinbestean.





Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Gizarte zibiletik gogoeta mugimendu garrantzitsua garatu da, hedabideek eta informazioak gizarte justuagoa eta bazterkeria gutxiagokoa finkatzeko duten zereginean. "Herritarrek ezin dute denon intereserako erabakiak hartzen parte hartu informaziorik ez badaukate" azpimarratzen da lan dokumentu askotan. Hedabideak deszentralizatzea eta demokratitzea helbururik behinen bihurtzen dira, eta IKTak (komunikazio eta informazio teknologiak), Internetek eremu horretan aukera esparru berria eskaintzen dute.

Komunikazioa garapenerako balio modura, eta Informazioaren Gizarte erreferente berri modura. Nazio Batuak erakundea Ginebran, 2003ko abendurako, "Informazioaren Munduko Gailurra" prestatzen ari da, 2005ean Tunezen segitzeko, perfilatzen hasi den gizarte berrira behar bezala egokitzeko ekintza plan estrategikoa diseinatzera begira. Gizarte zibiletik informazioaren gizartearen ikuspegi berria planteatzen da, Giza Eskubideak ardatz nagusi hartuta. Ohartarazten da ezin dugula "irispeneren gizartearen" kontzepziara mugatu, eta "Komunikazioaren Gizartearen" kontzeptuarekin, partaidetzazko gizartearekin lan egitea proposatzen da. (27)

Eta zer gertatzen da emakumeekin? Zenbait erakunde eta emakume ospetsuk berariaz, genero ikuspegia aplikatuz, eta jakinduria profesionaletik emakumeen irudia hedabideetan eta, bereziki, publizitatean, hizkuntza sexistan, berdintasunean eta irispenean, eta abarretan zergatik ez den agertzen edo agertzekotan zergatik agertzen den itxuraldatuta aztertu duten arren, komunikazioa eta informazio estrategiak normalean agendetatik kanpo eta, ondorioz, mugimendu feministen eztabaidetatik kanpo geratu dira.

### ***Bitarteko guztiak baliatuta!***

Sarritan, emakumeak hedabideetan ikusten ez direla, eta gure eguneroko errealitatetik kanpo eta gure interesetatik urrun dauden estereotipoak etengabe erabiltzen direla egiaztatu duten azterlan sakonen ostean, paralisian geratu gara. Ikusten duguna ez dugu gogoko, urteak daramatzagu kritikatzin, baina ez gara egoera aldaraztea eragozten diguten oztopoak hausteko estrategiak ezartzeko gai izan.

Beste batzuetan, "mass media" konbentzionalen esparruan toki hobea hartzen saiatzeari, edo geure komunikabideak sortzeari buruzko eztabaida sarritan alferrikakoetan xahutu ditugu indarrak. Horixe izan da feminismoari eta



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

komunikazioari buruzko gogoeta tarteetan tokirik handiena hartu duten eztabaidetako bat, berdintasunaren feminismoaren eta desberdintasunaren feminismoaren arteko liskar historikoen eraginez, agian.

Zergatik hautatu behar hori? Zergatik ezin dugu pentsatu komenigarria izan litekeela gure ekintza eta erantzun ahalmena bideratzeko geure bitartekoak edukitzea baina, aldi berean, tradiziozko hedabideetan presentzia handiagoa izateko helburuarekin, estrategiak prestatzea alboratu barik, horrela feminismoaren gogoeta gizarte osora zabal baliteke? Uko egingo diogu feminismitik, feminismoetatik, hedabideek, GUZTIEK, eskubideetan berdintasun eta oreka handiagokoak eta emakumeentzat hain baztertzaileak ez direnetan oinarritutako gizartea eraikitzeke ezinbestekoak diren aldaketak defendatzeko eskaintzen duten tresna bikaina erabiltzeari? Eta zer gertatzen da hedabideen demokratizazioaren aldarrikapenean ekintzaile diren gizarte zibileko taldeek sortu dituzten, eta presentziarik ezaren eta estereotipoak betikitzearen akats berberak errepikatzeko arriskuan dauden "kontra-informazio", "komunikazio alternatibo" "komunikazio antagonista" bezalako espazio berriekin? Ez al dute lan egin beharko genero ikuspegian eta irispenean emakumeen bereizketa positiboan, komunikazioa eta informazioa benetan demokratizatzen dela pentsatu ahal izateko ezinbesteko elementu modura?

### **Komunikazioa gure agenda politikoan**

Horregatik guztiarengatik lehenetsi behar da lan praktikoko dinamikak ezartzea, eta emakumeek informazioaren, komunikazioaren eta teknologien erabilpenaren esparruan gaitzea bultzatzea.

Oinarritzko eskema modura ondoko gai hauek mahaira genitzake:

#### **- Edukiak lantzea.**

Emakumeak informazio iturri gara, eta hori argi eduki behar dugu, hasiera-hasieratik. Aldi berean, interesgarri izan liteke komunikazioaren teknikan oinarritzko kontu batzuk ikastea, zein hedabidetara zuzentzen ari garen arabera halako edo bestelako informazio oharra idatziz, informazio tonuak eta iritzi tonuak bereiztuz, elementu sortzaileak erabiliz hedabideen arreta erakartzeko zabaldu behar ditugun gaietaz, informazioa ateratzeko une egokiak bilatuz, eguneko informazio agendan gai asko dagoen ala ez kontuan hartuta, zabalpenezko kontzeptu eta hizkuntza erabiliz, eta abar.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Informazioa eta iritzia produzitu behar ditugu, eta ahalik eta biderik gehienetatik ibili behar dira, oztopoen aurrean etsi barik.

Garrantzitsua da gogoratzea emakumeak ez direla hedabideetara iristeko arazoak dituzten bakarrak, beste kolektibo asko baitago baztertuta egun, agintarien diskurtsoarekin ados ez egoteagatik.

**- Hedabide tradizionalak eskaintzen dituzten baliabideak erabili.**

Egia da hedabide tradizionalak ez direla oso iragazkorak, baina garrantzitsua da beraiei buruz jarrera eginkorra izatea. Askotan, kontuan hartzen ez ditugun hedabideak dauzkagu eskueran, eta beste alde batetik, eskubideak ere badauzkagu... Gutunak zuzendariari egunkari eta aldizkarietan, telefono deiak gure ahotsa irrati eta telebistako zuzeneko programetan entzunarazteko, protesta deiak hedabideen erredakzioetara eta zuzendaritzetara, egoki irizten diogunean, horiek dira, besteak beste, informazioaren "kontsumitzaile" modura ditugun aukera batzuk eta, bestalde, hedabide publikoei dagokienez, funtsezkoa da mantendu behar duten zerbitzu publikoko kuotari zor dioten errespetua eskatzea.

**- Antolatu eta koordinatu emakume talde eta talde feminista desberdinek sortutako hedabideen babesean.** Geure hedabidea sortzea ere pentsa genezake..., betiko buletin bat, paperean, zein web orrialde bat, gure jardueren berri zabaltzek, posta elektronikoko zerranda da, interesatzen zaizkigun eta eztabaidatzea funtsezko irizten diegun gaiez, eta abar.

**- Informazio antagonistako, kontra-informazioko, informazio alternatiboko hedabide berriak aurkitu eta horietan parte hartzea, edukiak jarritz, eta emakumeen bazterketa eta eskubide desberdintasuna salatzen lagunduko duten eta gizartean esparru guztietatik egin behar den gogoetarako lagungarri izango diren testuak prestatuz** -espazio alternatiboetan ere, premia, gainera-, emakumeek esparru guztietan jasaten duten bazterkeriari aurre egiteko mahai ganean jar litezkeen mekanismoei buruz. Indymediak mundu osoan dituen orrialde desberdinen bitartez ezarritako dinamikak (Latinoamerikan: argentina, bolivia, brasil, chiapas, colombia, ecuador, mexico, qollasuyu, rosario, tijuana, uruguay; Europan: athens, austria, barcelona, belgium, bristol, cyprus, euskal herria, finland, germany, ireland, italy, madrid, netherlands, norway, portugal, russia, sweden, switzerland, thessaloniki, united kingdom), sarbidea <http://www.inymedia.org-en> dutenak, sarean dauden demokratizazio dinamiken adibide ona dira, eta horietan sarritan ageri-agerikoa da emakumeen ikuspegirik ez dagoela.

**- Emakumeak komunikazioan gaitzea bultzatu eta eskatzea,** bereziki IKTen erabilpenari dagokionez, emakumeek gizarte mugimenduen dinamika berrietan parte har dezaten estrategikoa ez eze, funtsezkoa ere baita pertsona modura lan



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

eta hezkuntza alderdiei dagokionez gara daitezten. PNUDren (Garapenerako bat egin duten Nazioen Egitara) ["Informe sobre Desarrollo Humano 2001"](#) izeneko txostenean ohartarazten da generoaren ikuspegitik "eten digitala" gertatzeko dagoen arriskuaz, baldin eta emakumeek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) eskueran izan ditzaten politikak lehenesten ez badira.

### ***IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia), gure aliatu modura***

Globalizazio neoliberalarekin kritikoa den mugimendua aspaldi ari da informazio propioa sortu behar dela esanez, eta abangoardista da, informazioa zabaltzeko, IKTak eta Internet baliatuz tresna berriak sortzen eta, gainera, informazioa eta komunikazioa demokratizatzeko ezinbesteko prozesuari laguntzen diote. Web, foro, banaketa zerrenda ugari laguntzen dute gaur egun informazioa masiboki banatzen, eta mezua gizartera hel dadin ziurtatzen, hedabide handiek talde edo ekintza jakin batzuei zer-nolako estaldura eta tonu informatiboa ematen dioten oztopo izan barik.

Alde horretatik, funtsezkoa da mugimendu feministetatik dinamika horretan sartu eta parte hartzea eta, gainera, genero ikuspegidun informazioak eta informazio feministak hedabide alternatibo horietan izan behar duten pisua aldarrikatzea.... ala, inork sinesten al du hedabideak demokratiza daitezkeela halako eremuetan emakumeak baztertu eta estereotipatzen badira, hedabide tradizionaletan sistematikoki egin den modura? Garbi dago ez dagoela benetako demokraziarik emakumeek parte hartzen ez badute eta, ezin dela, era berean, komunikazioaren benetako demokratizazioaz hitz egin baldin eta, bai hedabideetarako irismenean bai edukietan, berdintasuna eta bazterkeriarik eza bermatzen ez badira.

Informazioaren globalizazioa, IKTetik eta Internetetik eskaintzen dituzten aukera berriak, hedapenik handiena kosterik txikienetan ahalbidetuz, nodoen konexioaren bidez, inolako hierarkiarik gabe, nodo bakoitzetik emititzeko ahalmen berarekin, antolatutako sarearen egitura fisikoa bera, bereziki lagungarriak dira sortutako espazio berri horiek emakumeentzat bereziki mesedegarriak direla pentsatzeko, zeren inor ez baitago beraiek -gu- baino gertuago sarean lan egitearen esperientziatik.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

### *Ziberfeminismo soziala. Emakumeen politika interneten (28)*

Espazio birtuala eta internet informazioa masiboki eta azkar banatzeko, harremanetan egoteko, eztabaidatzeko, gogoeta eta ekintza estrategiak koordinatzeko, nor garen bistaratzeko, ezagutarazteko eta, mugimendu feministei buruz sarritan gaiztoki zabaldu diren "txarto-ulertu" historikoak argitzen laguntzeko...

Azkeneko hamarkada honetan sarean ziberfeminismo ugari sortu dira, Informazioaren eta Interneten teknologiek sorkuntzarako (29) edo gizarteko eginkortasunerako duten indarra agerian utzi duten esperientzia praktikoen sorta zabala eratuz. Adibidez, VNS Matrix (Venus Matrix) taldea, bere argudioetan, makinaren protagonismoa tarteko, bere arte lanak erabiliz, net.art eta gizarte patriarkalaren kontrako matxinada keinuak, OBN (Old Boys Network) Cornelia Sollfrank alemaniarra buru duen kolektiboa (30), 1997an Nazioarteko I. Topaketa Ziberfeministaren antolatzailea, bost urtean behin Kasselen (Alemania) aurkezten den munduko arte garaikideko azokarik garrantzitsuenetakoa den X Dokumentaren esparruan, Emakumeak Sarean eta emakumeen eskubideen aldeko sare eginkorrak munduko toki desberdinetatik, eta hizkuntza desberdinetan aritzen direnak (Creatividad Feminista Mexikotik, Penelopes Frantzian, Cybersolidaires Kanadatik, eta abar).

90. hamarkadan [VNS Matrix](#)eko kideek, "ziberfeminismoaren" izena asmatuz Australian beren lehenengo instalazioak, formatu elektronikoarekin -argazkiak, soinua eta bideoa- aurkeztu zituzten eta ziberespazioan gizarte esparrua, nortasuna eta sexualitatea ikertzen zituzten bitartean, emakumeak teknologia goreneko dispositiboetatik urrun litzaketan -zioten- mito maskulinoak nabarmen eta agerian utziz, eta "menderapen eta kontrol tresnak" emakumeentzat aldarrikatuz, "makinak pentsamendu erradikalez kutsatuz agintaritza hierarkikoaren trazatuaren berezko asmotik desbideratzeko" haustura kontsignarekin, New Yorken eta Londresen Giza Eskubideen defentsarako erakundeak eta talde ekologista eta bakezaleak, "zerbitzari alternatiboen bidez" Interneten lehenengo sare sozialak eraikitzen hasi ziren, eta emakume talde batek gizarte sare elektroniko horien erabilpen estrategikoa generoaren ikuspegitik diseinatzeari ekin zion. 1993an Komunikazioen Aurrerapenerako elkarteak APC taldea eratu zuen -munduan, emakumeen jabetuntzarako teknologia berriak erabiltzearen filosofia zuten emakumeak, Karen Banks australiarra Londresen GreenNet-etik eta Sally Burch kazetari britainiarra, herri komunikazioan eta genero komunikazioan eskarmentu handikoa, Ekuadorren ALAI informazioko agentzia alternatibotik egindako lanari esker, lantaldearen buru izan zirelarik-



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

APCren inguruan egitasmoa beretzen aitzindari izan ziren talde feministak American International American International Health Alliance, Boston Women's Health Book Collective, Casa de Colores, Center for Women's Global Leadership, Femnet, Equality Now, Global Fundation for Women, Isis Internacional eta De Mujer a Mujer izan ziren(31).

Lehenengo urratsak posta elektronikoko zerrenden bitartez emakumeen taldeek Munduko Emakumeen IV. Konferentziara zer jarrera helarazi nahi zuten eztabaidatzeari dagozkio, eta prozesua 1995eko irailean burutu zen, Pekinen, 24 herrialdetako 40 emakumeren taldeak 1700 erabiltzaileri prestakuntza eta laguntza ziurtatu zizkietenean eta, gainera, Txinan egondako GKEen informazioarekin eremu elektronikoko bat ere sortu zuten, 18 hizkuntzatan, web orrialdean 100.000 bisita zenbatu zituena(32). Lehenengoz, eta Txinan fisikoki egon ez arren, mundu osoko emakumeek Konferentziako lanak zuzenean, on-line, segitu ahal izan zituzten, eta beren iritziak ere bertan adierazteko aukera izan zuten. "Saio haietan mundu osora zabaldurik ziren posta elektronikoko mezuei esker, Beijingera joaterik izan ez zuten taldeek informazioa jaso zuten, hedabide tradizionalen mende egon barik zeren, hedabide horiek, gainera, ez baitzuten ekitaldi hura bereziki ondo landu. Emakumeen jabekuntzarako komunikazioa erabiltzearen aldarrikapenarekin eta hedabideak demokratizatzeko eskakizunarekin batera, ikertu beharreko beste bide batzuk ere bazirela ikusi zuten, aurkitu eta okupatzeko mundu berria, balioak itzulikatzeak aukera eta oraindik manipulatu bako eremua emakumeen borrokarako erabili ahal izateko moduko mundua, alegia." (33)

Pekinen lehenengo aldiz mahairatu zen, Munduko Emakumeen Konferentzia batean, komunikazioa oinarritzeko giza eskubidea zela, eta elementu estrategiko giltzarria ere bazela emakumeek eskubideen berdintasunaren aldeko borrokan eskatzen duten gizarte aldaketarako. "Indar erlazioa iraul genezake, edukiak eta praktikak dauzkagulako. Gakoa baloratzean dago. Ezinbestekoa da borroka estrategia, eraso estrategia ere izatea. Ez daukagu ezer galtzeko, eta dena irabazteko daukagu. Horrela hedabideetako irudia aldatu ahal dugu: aktoreak garen aldetik (egileak, kontzeptugileak, artistak, errealizadoreak...), subjektuak garen aldetik (eguneroko bizitzan, politikan, lanean, indarkerian...) publikoak garen aldetik", dio Joelle Palmieri ziberfeminismo sozialaren ekintzaileak. Ekonomiari eta kudeaketari aplikatutako Informatika Zientzian aditua da, eta Frantzian 1996ko ekainean "Penelopes" sarearen sortzailea; sare hori aitzindaria da soinua eta bideoa esperimendatzeko, Interneten bidez zabaldutako eduki feministadun telebista programetan.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Sare elektronikoek dimentsio berria eskaintzen diote borroka feministari. "Sareak ziberfeminismoari ibilgailu erabat desberdina eskaintzen dio, aurreko bolada feministekin inola ere alderatu ezin dena. Historikoki -dio Faith Wildingek (34) - feminismoa emakumeek, batera, sukalde, eliza, biltzar eta kaleetan gorpuztuz joatearen mende egon da.

Feminismoaren lehenengo faserako antolakuntza zelularra jostun zirkuluak, bekatarien taldeak edo andrazkoen karitateko erakundeak izan ziren. Emakumeak pribatuki elkartzen ziren, askapen politiko eta legaleko bere kanpaina publikoak antolatzeke. Emakumeen taldeak agerian zeuden kanpaina horietan, etxeetan isildutako bakardadearen kontra borrokatzen zen, emakumeen matxinadaren eta eginkortasunaren zeinu publiko bihurtuz. Emakumeak batera aritzen ziren, jendaurrean hitz egiten zuten, martxak egiten zituzten kaleetan zehar, eta bizitza publikoa asaldatzen zuten tradizioz itxita zeuzkaten lurralde politikoak irekitzen zituzten jarduerak eginez. Feminismoaren bigarren boladan, hirurogeigarren hamarkadaren hasieran azalera zenean, emakumeek berriro ekin zioten elkartzeari, ekintzak antolatzeke (...).

Garai hartan, feministak taktika berri bat menderatzen hasi ziren: oposiziozko ikuskizunak sortzea hedabideetan. (...) Monumentu patriarkal bakoitzak feministen eraso bat jasan zuen, US mugimenduan, Miss América Pegeantek, Playboyren bulegoek eta klubek, Wall Streetek, Metropolitan Museum of Art-ek, Pentagonoak eta Etxe Zuriak. Edozein ekintza gertatzen zenean, hedabideak han zeuden, emakumeen gordinkeria iraingarria dokumentatzeko. Taktika horiek feminismoaren nazio eta nazioarteko hazkundearen albisteak zabaldu zituzten.

(...) Feminismoaren hirugarren boladak (kulturala, ekoa, teorikoa, sexu positibokoa, pornografiaren kontrakoa, kultur anitza, eta abar) -postfeminismoa izenez ezaguna- ekintza eta matxinada eredu publiko hauek erabiltzen segitzen du (...). Duela gutxiko kasu bat aipatzearen, Emakume Eginkorren Koalizioa aipatuko dugu (WAC), bizitza labur eta bizikoa, New Yorken 1991ren amaieran hasi ziren, AEBko emakumeak sutu zituzten hainbat gertakariengatik: Hill/Thomas epaiketetako lekuko azterketa dramatikoa, nazio osoan telebistaz ikusi zena; William Kennedy Smith eta Mike Tysonen bortxaketa epaiketak; eta abortu eskubideen gaineko borroka judizialak: horrek guztiak emakumei gizarte, sexu eta jazarpen eta indarkeria politikaren kontrako "erresistentzia ikusgarri eta nabarmena" abiarazteko unea heldu zitzaizela pentsarazi zien. WAC berehala hasi zen



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

hedabideak erakartzen, ekintza baten ostean, ekintza ikusgarri bat bultzatuko balu bezala. Lehenengo urtean zortziehun pertsona sartu ziren elkartean, eta zerrenda AEB eta Kanadan zehar gehituz joan zen. Hasierako gertakari horietako asko WACek berehala antolatu zituen komunikazio eta sareko lan sistema eraginkorri esker irabazi ziren. Erabakigarria izan zen sistema honetan telefonozko konexioa hedabideen fax, posta elektronikoko eta bestelako kontaktuekin lotzea. Alde horretatik, WAC erakunde protoelektroniko goiztiarra izan zen. Emakume asko motibatu eta antolatu zituenez, WACek eginkortasun feminista berrindartu zuen, eta AEBn lurralde feminista tradizionalen aldean erantzuteko modu berria ahalbidetu zuen."

### ***Emakumeak Sarean, espazio komun birtuala feminismoentzat***

1997ko abuztuak Espainian Mujeres en Red sortu zen (35), Interneten munduko emakume eta talde feministen artean informazio, estrategia eta harremanak trukatzeko erraztu nahirik. Kontra-informazioa eta internet gizarte zibilaren komunikazio tresna modura erabiltzea lehenesten dituen Nodo 50 espainiar zerbitzari alternatiboaren babesa funtsezkoa izan zen Interneten feminismoari eta generoari buruz sakabanatuta zeuden baliabideak biltzeko pentsatutako espainiarazko eremu hau garatzeko. Gaika eta herrialdeka antolatuta, Mujeres en Red, hainbat urteko lanaren ondoren, planetako emakumeen ia web guztietarako sarreraren erreferentzia atari bihurtu zen. Kanpoan geratu ziren, ideologia tarteko, emakumeak hizpide dituzten, oraindik ere sukaldaritza, edertasun eta moda "emakumeen argitalpen" baten arrakastarako funtsezkotzat dituzten eta mundu birtualean baztertu ditugun hedabide tradizionalen estereotipoak errepikatzen dituzten web ugariak.

Pasatzen utziko ditugu sare elektronikoen gizartea aldatzeko bitarteko modura eskaintzen dizkiguten ahalbide guztiak? Orain daukaguna bezalako aukera gutxi izaten ditugu emakumeak hainbeste baztertuko ez dituen mundu birtuala eraikitzen hasteko. Horretarako, ezin dugu gutxiengo izan Teknologia Berrietara iristeko orduan, asko izan behar dugu eta, horregatik, ziberfeminismo sozialetik emakumeen hezkuntza teknologikoa lehenesten da eta, izan ere, emakumeen Interneten erabilpenaren zenbakiak goraka doaz, gizonezkoen ziberespazioko presentziaren aldean duten desoreka aldararaziz. Baina egoteaz gain, interesatzen zaizkigun edukiak ere nahi ditugu webean; horrela Mujeres en Redek feminismoen inguruko gogoeta egiteko eta emakumeen eskubideen defentsan lan egiteko ezinbestekoak diren testu ugari sartu eta argitaratzen ditu, horrela baliabideak





Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

ezagutu, aprobetxatu eta partekatzea ere bideratuz. Ez gaude gu baino lehenago halako egoerei aurre egin behar izan zieten eta aurrera egiteko balio liezaguketen gogoetak egin eta estrategiak prestatu zituzten beste emakume batzuek pentsamendua eta esperientziak alboratzeko edo, besterik gabe, ez ezagutzeko moduan... historian zehar une hauetan kolektiboki orain gauden tokian -aurrerapen handiago ala txikiagoz, lurraldeen arabera- kokatzen gaituen bidea egiten lagundu duten beste emakume batzuen genealogia eta aintzatespena berreskuratzea behar ditugu.

Mujeres en Red prozesuko esperientziarik garrantzitsuenetako bat gero eta ahaltsuagoak eta partaidetza handiagokoak diren posta elektronikoko zerrendek eskaintzen dituzten ahalbideetan dago. Baliabideak partekatzeko weba eta eginkortasunerako, informazioa posta elektronikotik banatzeko zerrendak. Milaka helbide elektroniko elkar-gurutzatuta, borroka puntualetan ahaleginak batzeko, salaketak partekatu eta konektatzeko, mobilizatorako estrategiak prestatzeko... komunikazioen globalizazioa eraikitzen ari den mundu berriaren alderdi positiboa da. Planeta guztia konektatuta, munduko emakumeek, estatuak, erlijioak eta kulturak alboratuta, komuna zaien patriarkatuari aurre egiteko bat egin dezaten aukera. Emakumeen sare elektronikokoak hizkuntza desberdinetan eta espazio komunetan ordu gutxian erantzuteko aukerarekin, emakume sareak gizarte sareetara konektatuta... planetako lekuri gordeentara "klik" hutsarekin hel liteke. Emakumeen 2000ko martxak hala erakutsi zuen, milaka emakume Interneten bidez komunikatu eta koordinatuta, pobrezia eta genero indarkeria salatzeke helburupean, ehun bat emakumek Kanadatik luzatutako proposamen bati erantzunez, munduan milioika pertsona mugitzeko gai izan baitzen. Emakumeen ekintzarako batasuna egingarria eta benetakoa da. Mundu birtualak laguntzen du, eguneroko ez-birtualean agitazioa eta mugimendua suspertzen; prozesua sendotzeko diseinatzen ditugun estrategien mende egongo da, azkenean, aldakuntzarako tresna erabakigarria izatera hel dadin ala ez.

"Sarea jatorrizko diseinuarengatik eta kontzepzioarengatik paregabea da berez emakumeentzako eremua izateko. Internet sare lau modura pentsatu zen, nodo guztiak berdinak dira, ez dago hierarkiarik, edozeinek berdin sortu eta zabal dezake informazioa, ahalmena estrategia ona izateak eta sarea ondo ezagutzeak baldintzatuko du batek mundu ez-birtualean duen potentziak baino. (...) Sarearen kontzepzio lauak dakarrena da emakumeontzat komunikatu eta harremanak izateko eremu erosoagoa izatea" dio Lourdes Muñoz Informatika Ingeniariak; emakumearen alorraren arduraduna da, Kataluniako Alderdi Sozialistan, eta



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

emakume politikarien lehenengo sare elektronikoa sortu zuen. Bakoitzak gure denbora pixka bat ematea, denok irabazi ahal izan dezagun; jendeari ulertaraztea beti erraz izaten ez den kultura berria. Emakumeon indarra batzea patriarkatuaren egitura sakonak aldatzeko beharrezkoa den "jabekuntza" iristeko bide bakar modura, mundu justu eta berdintasun handiagokoa lortzeko. Ziberfeminismo sozialaren helburua hori da (36).

"Feministek irtenbide gehigarriak bilatu behar dituzte: informatika emakume gutxi ibiltzen den lurraldea den arren, horietako asko web gune bat egiteko prestatuta daude, baina oraindik "feminista" hitza entzuten dutenean urtikariarik atera ez dakien lortu behar dugu. Garrantzitsua da neska gazteak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak kontrolatzen ikastera animatzea, mugimendu feminista den moduan sentitu eta ikus dezaten aukerak emanez: gero eta globalagoa, pluralagoa eta zoragarriagoa" dio Nicol Neptonek; emakume honek Kanadatik "Cybersolidaires" sortu zuen, ezinbesteko erreferentzia frantses hitzuntzat, emakumeek teknologia berriak erabiltzeari buruzko gogoeta prestakuntzako eta ziber-eginkortasun feministako txostenekin planteatzen duten weben artean. Latinoamerikan ugariak dira sare eta gune ziberfeministak, Afrikan, Famafrigue APC-emakumeak gunetik prestakuntza egitarauak koordinatzen dira, Asian bezala. Ziberfeminismo soziala gero eta indartsuago eta presentzia handiagoz hedatzen ari da. Ekintza maila desberdinak, teknologien ezagupen maila desberdinak, bide desberdin baina bateragarriak. Sinadura baten atzean dagoenaren sexua dena delarik, gizonezko batek sareen aukera birtualak trabestitzeko erabiltzeaz harantzago, garrantzitsuena da defendatzen diren politikek estrategia feministak izatea. Ziberfeminismo soziala gero eta alternatiba interesgarriago modura ageri zaigu. Emakumeok lortu dugu sarean geure eremua eraikitzea. Ez da eremu eskusiboa baina lortu dugu ingurune berri honetan geure arauak jartzea patriarkatuarekin espazio birtualarengatik lehiatuz -Wildingek errebindikatzen duen bezala.

### ***Emakumeak sarean software libre eta ez-sexitaren alde***

2003ko martxoan Mujeres en Reden Software Libreari buruzko lan taldea sortu zen, SL zabaldu, eskura jarri eta ezagutzea bultzatzeko, eta alor horretan ere genero politikak eskatzeko. IKTen erabilpenean filosofia berri hau zabaltzeko une historiko eta giltzarri honetan, eta ildo horretan esperientzia garrantzitsuak garatzen hasten ari diren garaietan, *ez dago emakumeak SLan sartzeko egitarauen bat ere izpirik.*



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

*Software libre emakumeen jabekuntzarako lagungarri izan daitekeela uste dugulako, software libre garapen iraunkorrerako funtsezkoa dela uste dugulako, lanabes informatikoen garapena bezain egitasmo sendo eta garrantzitsutik kanpo geratu nahi ez dugulako, dio aipatutako web horren lehenengo orrialdean, eta azpimarratzen dute software librearen aldeko apustua ez dela gai tekniko hutsa... apustu politiko gero eta garrantzitsuagoa da, eta emakumeok, feminismoa, genero ikuspegiak ezin dira filosofia berri horretatik kanpo geratu.*

### **III Ez galdu esteka hauek:**

#### **▪ EUSKADIN**

*Bizkaiko Foru Aldundia: Genero Politiketarako Arloa*

[http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=159&Idioma=EU](http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=159&Idioma=EU)

*Emakunde* <http://www.emakunde.es/>

*Euskadi Informazioaren Gizartean Plana* <http://www.euskadi.net/eeuskadi/>

*Hegoak* <http://www.hegoak.com/lesb/lesb-f1.html>

*Plazandreak* <http://www.euskalnet.net/plazandreak/>

*Indymedia Euskal Herria - Emakumea*

<http://euskalherria.indymedia.org/es/emakumea/archive.shtml>

*Wikipedia Euskaraz* <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>

#### **▪ ESTATU ESPAINIARRERAN ETA LATINOAMERIKAN**

*Mujeres en Red* <http://www.mujaresenred.net>

*Red Feminista de Organizaciones contra la Violencia de Género*

<http://www.redfeminista.org>

*Malostratos.com* <http://www.malostratos.com>

*Creatividad Feminista* <http://www.creatividadfeminista.org>

*Instituto de la mujer* <http://www.mtas.es/mujer/>

*Mujeres de negro* <http://www.mujaerpalabra.net/activismo/mdnmadrid/>

*Red de centros de documentación y bibliotecas para mujeres*

<http://www.cird.bcn.es/castella/einfor/einfor8.htm>

*Isis - Internacional* <http://www.isis.cl/>



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

Educar en Igualdad <http://www.educarenigualdad.org>  
Librería de Mujeres. Madril <http://www.unapalabraotra.org/>  
Feminismos, géneros e identidades. Purificación Mayobre.  
<http://webs.uvigo.es/pmayobre/index.html>  
Centro Mujer y Literatura [http://www.ub.es/cdona/esp/welcome\\_esp.html](http://www.ub.es/cdona/esp/welcome_esp.html)  
Penelopes <http://www.penelopes.org>  
Mujeres Hoy <http://www.mujereshoy.com>  
Rima- Argentina <http://www.rimaweb.com.ar/>  
Educación en Valores <http://www.educacionenvalores.org>  
Aula Intercultural <http://www.aulaintercultural.org>  
Mujeres Mediterráneas <http://www.mediterraneas.org>  
Dones Periodistes de Catalunya <http://www.adpc.cc/>  
Cimac Noticias - Mexico <http://www.cimacnoticias.com/>  
Tertulia - Guatemala <http://www.geocities.com/quatertulia/>  
Banco de datos - Femicidio <http://www.isis.cl/Femicidio/index.htm>  
Red de Salud de las mujeres latinoamericanas y del caribe <http://www.reddesalud.org/>  
UNIFEM-ONU <http://www.unifem.org/>  
AUDEM - Asociación Universitaria de estudios sobre las mujeres <http://www.audem.com/>  
Ciudad de Mujeres <http://www.ciudaddemujeres.com>  
Eleusis <http://www.e-leusis.net>  
Escritoras <http://www.escritoras.com>  
Femicidio en Juárez. Mexico <http://www.mexicoturismo.org>  
Habitación propia. Espacio virtual de mujeres  
<http://www.cosmovisiones.com/habitacionpropia/>  
Democracia Paritaria <http://www.democraciaparitaria.com>  
Alai - Agencia Latinoamericana de Información <http://www.alainet.org/>

## OHARRAK

1 Komunikazioen Aurrerapenerako Elkarteak (APC) 130 herrialde baino gehiagoko milaka GKE, ekintzaile, hezitzaile, politiken arduradun eta erkidegoetako liderrentzat funtsezkoak diren komunikazio loturak eskaintzen dituzten ordenagailuen bidezko sareen munduko elkarte da.

2 Emakumea eta hedabideak. «Objetivos estratégicos y medidas» Beijingeko ekintza plataformarenak, (NBE, 1995, iraila). Ikus eranskina - Dokumentazioa, 145. orr.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

3 Quitoko adierazpena - 1993

[http://www.movimientos.org/foro\\_comunicacion/doc\\_declaracion\\_quito.html](http://www.movimientos.org/foro_comunicacion/doc_declaracion_quito.html)

Komunikazioa demokratizatzekeo estrategiak

[http://www.movimientos.org/foro\\_comunicacion/doc\\_estrategias.html](http://www.movimientos.org/foro_comunicacion/doc_estrategias.html)

4 Bangkokeko konferentziako adierazpena. Ikus eranskina - Dokumentazioa, 131. orr.

5 Genero komunikazioari buruzko topaketa erregionalaren adierazpena .Quito 94. Ikus eranskina - Dokumentazioa, 135. orr.

6 Torontoko ekintza plataforma. Ikus eranskina - Dokumentazioa, 137. orr.

7 <http://www.igc.org>

8 <http://www.gn.apc.org>

11 .Una cuestión de genero. Verónica Engler - Argentina - «Punto Com» aldizkaria

<http://www.nodo50.org/mujeresred/internet-veronica-2.htm>

12 <http://www.laneta.apc.org/8marzo/programa.htm>

13 Lehenago, pekín.info - <http://www.modemmujer.org/>

14 Beijingeko komunikazio taldeko kide eta Alai-Ekuadorreko kazetari Irene Leónen testu desberdinetatik aterata.

15 <http://www.adpc.org/>

16 <http://www.women.it/>

17 <http://www.provincia.venezia.it/medea/infoperla/info0.htm>

18 <http://www.provincia.venezia.it/medea/index.shtml>

19 <http://www.penelopes.org/>

20 <http://www.womenspace.ca/Campaign/Fr/S.exprimet/plus.html>

21 <http://www.womenspace.ca>

22 <http://www.ffq.qc.ca/marche2000/es/>



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

- 23 <http://www.womenews.net>  
24 <http://www.creatividadfeminista.org>  
25 <http://www.geocities.com/quatertulia>  
26 <http://www.geocities.com/litertulia>

27 - Informazioaren Gizartean Komunikazioaren Eskubidearen aldeko kanpaina.  
CRIS <http://www.comunica.org/cris>

28- Testu honetatik ateratako kapitulua: "[Los géneros de la red: los ciberfeminismos](#)" Ana de Miguel, A Coruñaiko unibertsitatea, eta Montserrat Boix, Informazio Zientzietan lizentziatua eta Mujeres en Reden sortzailea

29 - "World Wide Weba adierazpen bide nagusi modura erabiltzen duten emakume artistak toki paregabeen daude atentzioa deitzeko eta museologiaren alorrean segitzen diren jarraibideei eta galeria sistemei aditu barik funtzionatzeko. Teknologiaren laguntzarekin -dio Victoria Vesna UCLako Arte Eskolako Marrazketa eta Media Artseko saileko irakasle eta artistak- nortasuna, sexualitatea, generoa ere eraiki liteke, guk geure burua zelan ikusten dugun arabera. Ingurune aproposa da artista izatearen aurre-iritzirik ez dutenentzat, bereziki obra definitzen zailak eta, sailkatzen zailagoak dituztenentzat. Bat-batean, artean edo artearen historian hezitako emakuek askok sormenezko ihesbide bat daukate, kapital eta eragin handirik eskatzen ez diena. Halako aktibismoaren adibide esanguratsu bat Kathy Rae Huffman dugu, 80. hamarkadaren hasieran mandatari arrakastatsua, bideoartean espezializatua izatetik sarean ziberfeminista/artista ospetsu izatera pasatu zena."

30 - Sollfrank-en egitasmorik garrantzitsuenen artean hauek daude: "[Female Extension](#)" (1997) eta "[Women Hackers](#)"(2000)

31 - Intereneteko emakumeen sareen gaineko historiaren zabalpena testu honetan: "La comunicación como aliada. Tejiendo redes de Mujeres", Montserrat Boix. Liburu honetatik ateratakoa: El Viaje de las Internautas . Una mirada de género a las nuevas tecnologías, AMECOK editatuta. <http://www.mujaresenred.net>



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ahaldun Nagusiaren  
Kabinetea  
Gabinete del  
Diputado General

32 - Pekingo komunikazio taldeko eta ALAIko taldeko Irene Leónen testuetatik aterata

33 - El viaje de las Internautas. 32. orr.

34 - ["Notas sobre la condición política del Ciberfeminismo"](#)

35 - Mujeres en Reden esperientziaren eta Interneteko emakumeen sareen historiaren gainean: El viaje de las Internautas. Una mirada de género a las nuevas tecnologías, AMECOK editatua. II. kapitulua "La comunicación como aliada: tejiendo redes de mujeres" por Montserrat Boix. Liburua osorik jaitsi daiteke Mujeres en Red webetik.

36- Lourdes Muñoz - [La red en femenino: las feministas tejiendo redes por la igualdad. Red, mujer y política](#)